

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## HERNANI GOIZ EGUZKI

**Kontzertua, bihar**  
Urtea ondo hasteko aitzakiarik ez zaie falta Goiz Eguzki abesbatzako kideei. Gabonetako kontzertua eskainiko dute bihar, 19:00etan, Goiz Eguzkin. ||

## HERNANI PORTU AUZOA

**Pelikula, lokalean**  
Gabonetako ekintza berezien barruan, umeentzako pelikula jarriko du Portu Auzo Elkartek gaur, 17:30etan, lokalean. Bihar, errosilla tailerra eta merendola izango da, 16:30etan. ||

## HERNANI LIBURUTEGIA

**Bi kontaketa, gaur**  
Apaxi ipuin kontalariarekin bi saio izango dira gaur Biterin. Aurrenekoa, 11:00etan, 3-4 urtekoentzat; eta bigarrena, 11:30etan, 5-7 urtekoentzat. ||

## HERNANI ESKUBALOA

**Ate irekiak, bihartik**  
Ate irekiak egingo ditu bihar eta etzi Hernani Eskubaloia Taldeak, kiroldegian. 2007-2010 bitartean jaiotakoentzat izango dira saioak, 10:30etatik 12:30etara, 1.pistan. ||

## HERNANI BERRIAK

**Trajeen bila, gaur**  
Larunbatean aterako da Erregeen kabalgata Hernanin, Berririk elkartek antolatuta. Bertan parte hartuko dutenek gaur dute azken eguna trajeak jasotzeko. Biterin izango da 17:00etatik 18:00etara. ||

## GOIZUETA ETA ARANO TASAK

### Udal tasa eta zerga berriak, atzotik

Urtea hastearrekin batera jarri dira indarrean, bai Goizuetan eta baita Aranon ere, 2019ko udal tasa eta prezio publikoak, eta karga tasak. Goizuetari dagokionez, 2019ko udal zergen karga tasak 2018ko berdina izanen dira. Aranoko kasuan, udaleko iragarki oholean ikusi daitezke. Era berean, Aranoko udal tasa eta prezio publikoak 2018ko berdina izanen dira. ||

## URUMEA KRONIKA

# Urumea bailara osora egunero, Kronika

Bailarako albistez osatuta, gaurkoa izango da aurreneko Kronika berria, herri guztietara iritsiko dena. Baita Astigarragara ere; orain arte, asteazken eta larunbatetan jasotzen zuten bertakoek.

AURRERAPUSOA eman du gaurtik aurrera Kronikak, eta edizio bateratuan jasoko ditu hemendik aurrera Hernani, Ereñotzu, Astigarraga, Goizuetan eta Aranoko edukiak.

Horrek ekarriko du Astigarragako Astigarragako Kronikaren ibilbidea etetea, eta horren partez, astigarrarek egu-

nero egunero jasotzea Kronika, orain arteko banaketapuntu berberetan. Baita Kronikaren webgunean ere: [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus).

Urumeako gainerako herrietan, hau da Hernanin, Ereñotzun, Aranon eta Goizuetan, dagoeneko jasotzen dute egunero, hutsik egin gabe.

**Bailararen kohesioan, eragina**  
2014an hasi zuen, Urumea bailarara zabalduta eta bailara osoko herrien berri emateko bidea. Horretarako sortu ziren Astigarragako Kronika, asteazkenetan, eta Urumeako Kronika, larunbatetan. Eta orain, beste pauso txiki honekin, bailara naturalaren kohesio-

an eta elkar ezagutzan eragin nahi du, baita Kronikari aberastasuna eman ere.

Asmo horrekin aurkezten du Kronikak 6.617garren alea, ale bateratuaren aurrenekoa. Edizio guztietako aleen baturatik jaio da, eta zenbaki horri emango zaio segida hemendik aurrera. ||

## HERNANI PALA

# Bi txapela, Irazustabarrena eta Huizik

Bizkaia Torneoko eta Sakanako Txapelketako txapelak jantzi zituzten asteburuan Amaia Irazustabarrena eta Maider Huizi palistek. Bihar, gaztetxoeren txanda izango da.

URTEA ezin hobeto bukatu zuten Amaia Irazustabarrena eta Maider Huizi palista hernaniarrekin, bi final irabazita. Bizkaia Torneoa irabazi zuten aurreneko larunbatean; eta igandean jantzi zuten bigarren txapela, Sakanako txapelketan.

### Araiztegi eta Mendizabalen aurka, Bizkaia Torneon

Aski ezaguna duten bikotearen kontra jokatu zuten aurreneko finala, Bizkaia Torneoa, Amaia Araiztegi eta Maider Mendizabalen aurka.

Larruzko paletaz jokatu zuten, eta 4-8, 8-6, 8-3, 7-8 eta 8-3 nagusitu zitzaizkien aurkari, larunbatean. Ordubete pasatxo iraun zuen partidua; hasieran aurkariak indartsu hasi ziren, baina hernaniarrak izan ziren garaile, azkenean.

### Sakanako txapela, igandean

Igandean jantzi zuten aste-

Amaia Araiztegi eta Maider Mendizabal izan zituzten aurkari, larunbatean.

buruko eta urteko azkeneko txapela, Sakanako Txapelketan. Bertan, Irazustabarrena eta Huizik 25-16 irabazi zieten, Leire Etxaniz bizkaitarrari eta Ane Isasmendi gasteiztarrari.

### Pala eskolaren topaketa, Zumaian

Pala gehiagorekin hasiko dute urtea. Oraingo honetan, pala eskolako gaztetxoeren txanda izango da. GEPEk antolatuta, Hernaniko infantilek eta alebinak Zumaia Aitzuri kiroldegian izango dute zita bihar. 09:45etan, benjaminak eta alebinak arituko dira, eta 11:15etan, infantilak. ||



Amaia Irazustabarrena eta Maider Huizi Bizkaia Torneoko txapelarekin.

Gabonetan, oparia Euskaltelen esku!

SOILIK 29'9€ /hil 6 hilabetez

Zatuz Euskaltelera

60 MEGA	10GB DE MUGAGABEAK
PREMIUM TBa	FINKOAK DE MUGAGABEAK

Fitness jardueraren kontrola duen smartwatch hau ZURETZAT OPARI

euskaltel

**K** ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA  
943 55 49 89  
ikatzatabela@gmail.com

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

**TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **IJOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
 / **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

**EGURALDIA**  
**GAUR** Giro goibela espero da, eta baliteke euri pikka bat egitea. Giroa hotza izango da, eta iparraldeko haizea ibiliko da, batzuetan, indartsu. **Min.5° / Max.8°**  
**BIHAR** Eguraldiak ildo beretik jarraituko du bihar. Lainoak ostareei gailenduko zaizkie; hala ere, ostareak gailendu eta arratsaldea eguzkitsu egongo da. Hotza egingo du. **Min.4° / Max.8°**

## HERNANI SAN SILBESTREA



Saridune guztiek 'familia' argazkia egin zuten, bukaeran. Argazki gehiago: [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus).

# Idoia Pico eta Anartz Artola, urte zaharreko azkarrenak

Harriketarrak laukoteak irabazi zuen mozorro onenari saria.

GIRO paregabearekin, 18:00ak pasatxo abiatu ziren herenegun, urte zahar egunez, Wukroren aldeko San Silbestrea osatzeko gogoz ia 400 korrikalari. Inoiz izan den izenemate kopuru altuena izan dela adierazi du antolakuntzak.

Plazatik abiatu, eta Lizeaga aldera joan ziren korrikalariak tropelean. Gutxianaka distantziak sortzen hasi ziren, eta bukaerarako, bakar bakarrik, garaile gisa agertu zen

Anartz Artola hernaniarra, herriko plazan. Aurreneko gizonetzkoa izan zen bera; bigarren iritsi zen Vicent Pastor, eta hirugarren, Andoni Olazagirre.

Emakumezkoen artean, Idoia Pico irundarra izan zen azkarrena; bigarren izan zen Hoki Guerrero, eta hirugarren, Eva Esnaola.

Mozorro onenari saria Harriketarrak laukoteak jaso zuen. ||

### WUKROREN ALDEKO SAN SILBESTREA

#### Emakumezkoen sailkapena

1. Idoia Pico
2. Hoki Guerrero
3. Eva Esnaola

#### Gizonetzkoen sailkapena

1. Anartz Artola
2. Vicent Pastor
3. Andoni Olazagirre

#### Mozorro onenari saria

Harriketarrak

## ASTIGARRAGA GABONAK

# Haur Parkea gaur, Gabonetako jarduera bereziak borobiltzeko

Goiz eta arratsaldez irekiko dute, kiroldegian eta Herri Eskolako atarian, 11:00etatik 13:30etara, eta 16:30etatik 19:30etara. Sarrera, debalde.

JOLASEAN bukatu zuten urtea Astigarragako gaztetxoenek, eta halaxe hasiko dute, baita ere. Eta horretarako, aukera onena izango dute gaurko Haur Parkean. Urtero bezala, Astigarragako kiroldegian jarriko dute gaur, baina aurten, hainbat atrakzio jarriko dituzte Herri Eskolako atarian.

Goiz eta arratsaldez egongo da irekita, 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 19:30etara, eta sarrera debalde izango da.

**Ondo pasatzeko aukera** Lagunekin eta familiaretekoekin

Bihar eta etzi Jolas Aretoan aritzeko aukera izango dute 9 eta 12 urte bitartekoek.

kin ederki pasatzeko aukera izango dute Astigarragako eta Urumea bailarako gaztetxoek, Haur Parkean. Denetarik egongo da, horretarako: kiroldegian, ludoteka, puzgarriak, wipeout pasabidea eta erratza, gladiadore borroka..., eta ikastolako atarian jarriko dituzte

pedalezko ibilgailuen zirkuitua eta ogi eta talo tailerrak.

**Jolas Aretoa, bihar eta etzi** Bihar eta etzi, aldiz, Jolas Aretoan aritzeko aukera izango dute, berriro ere, 9 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek. Kultur etxean jarriko dute, aurreko astean bezalaxe, eta goiz eta arratsaldez egongo da irekita: 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara.

Mahai-jolasetan, ping pongen, futbolnean, billarrean eta zurezko hainbat jokoekin aritzeko aukera izango da. ||

## HERNANI ETA ASTIGARRAGA FARMAZIAK

# Aldabe Romerok, 2019ko guardiak

Atletismoko pista ondoko farmazian izango dira gaueko guardiak hernaniar eta astigartarrentzat.

URTE berriaren hasierarekin, gaueko guardiak egingo dituen farmazia aldaketa ere egin dute gaueko langileek. Hernaniko Perkaiztegi kaleko Aldabe Romero farmaziak hartu zion atzo lekukoa Urbietako kaleko Castilla-Larbururi.

Hortaz, atletismoko pista ondoan dagoen farmazia

izango da 2019an zehar, hernaniar, astigartar eta urnietarren urgentzizko beharrak asetuko dituena. Izan ere, hiru herrietako biztanleek Hernanin dute urgentzia zerbitzua.

Ohi bezala, gaueko 22:00etatik goizeko 09:00etara egongo da irekita. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**ANTONIO MADINA**  
**ARROZPIDE**

*Joan zinen gu hemen utzita baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko*

**IÑAKI, GARBIÑE ETA ENAITZ ELIAS, OIHANE ETA AMETS**

Hernanin, 2019ko urtarrilaren 2an

**ANTXON MADINA**  
**ARROZPIDE**

*Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik*

**ZURE KOADRILA**

Hernanin, 2019ko urtarrilaren 2an

**ANTONIO MADINA**  
**ARROZPIDE**

*Ixiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.*

**ARROZPIDE LEHENGUSUAK**

Hernanin, 2019ko urtarrilaren 2an

## IRAGARKI MERKEAK

**Pertsona bat behar da adineko bat zaintzeko**, titulazioarekin. Kontratua eta gizarte segurantzarekin. Deitu: 649 887 976

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA